

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea. Pamplona. Julio. 1967. Uzta-illa. Iruña. — 17 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

ZEZENAK



Azken urte auetan, gero ta geiago dira zezen-plazetan sudurrak sartzen dituzten baserritarrak. Ez denak, begi bat gostatzen bai da an sartzea. Eta gure galdera auxe da: gustatzen zaizkie zezenak?

Bai, eta ez. Askori galdetu diet:

1) Askok gustatzen zaie... zezena. Plaza beteko lepondoak ikusten omen dira; eta satorrik ez omen da ain legunik.

2) Etzaie sartzen ango odol ixurtzea. Nola uzten diete animali gaixoei ori egiten? Lanerako ibiltzen ditugun akulluen txixtak kendu nahi dizkigute eta an...

Artzai zahar batek zion, «berei egingo liekela arek. Bihotzik ez dutela alako gizonak».

Eta ez da eskualdunak besteak baño aulago geralako; gure joku geienak gogortxoak izaten dira. Or dira aate-festa eta ari borrokalarienak. Buru eta kemenez jokatu behar izaten dira pilota eta aizkora apustuak. Indar saiotan, arri jasotze eta idi apustuak ba ditugu.

Zezen kontuan ere ez gera lo egonak. Naparra zen Karrikiri (karrika-idi?) odol gorriko kasta eta Sanferminetan aspaldikoak dira zezenak. 1692'ko zezenak Salamankatik ekarri zituztela ikusia dut, orduko paper zaharretan.

Alare baserritarrari ez die begirik betetzen. Zergaitik? Nik uste, azienda gorriak eguneroko lagunak dituelakotz. Aker saioa edo otsoa bizirik larrutzea izan balitz etzen ala kupituko; eta behar bada gustatu ere bai. Baño, idia Eskualerrian errespeturik aundienero gauza izan da beti. Idi bati etzaio ori egiten.

Iruñen «Zezenaren feria» asmatua dute. Eskualdunon asmoak sumatu dituztela esango nuke. Gizonak bere trebetasuna abereen kontra erakutsi nahi ba-du, erakus dezala; baño gezurrik gabe, adin eta kasta oneko idiek, beren adar eta guzti.

Airezko untzien (abionen) etxe batek esaten duena: «emen, batekin bakarrik dugu zurekin baño begiramendu geiago: abionarekin». Eta an ibili behar duteneri ori gustatu egiten!

Iruñen ere zezenari begiratzen asiak dira «toreroari» baño geiago. Zezenetara joan eta ez auntzak ikusi behar izateko; eta gañera, «toreroak» beren lana ongi baliatzeko zer egin ba dakitelako.



MUNDU ZABALEAN

ISRAEL

Azken aldi ontako mutila Israel izan da munduan. Arabe eta beren arteko aize txarrak erautsi beltz aukerri dituzte. Odolez garbitu dute elkar ezin-ikusia.

Aspaldikoak ziren bien arteko istilluak. 1949'an jabetu ziren beren lurrez, judutarrak; eta begiko zikina baño geiago etziztuzten ikusi nahi lengo jabeak. Asiera.

Israel erri gaztea da eta bizi-naiya. Dirua badu eta xuhur bizi, famili langille bat bezala aurrera ateratzen da. Arrigarrizko aurreramenduak egin ditu nekazaritzan. Ezer etzegon lekuan aberastasuna sortu du.

Besteak, betiko petralak: ez dute sekula behar bezala lanean ikasi, edo bestela aztua dute. Ori bai; beren buruak aundi egiten zituzten eta asko zirelakotz uste zuten judutarren gain irri ta barre egitea. Bai to! Hil edo biziko auzia zutela jakinik, goizetik gauera lertu da juduen pazientzia eta, arabe jendea bere oial xuritan esnatzen asi orduko beste punta jo ta zeuden berak.

Bat bateko jokoa izan da israeldarrena, eta asko balio die. Alakorik etzen iñoiz ikusi; etsaien abionak, txoriak kafian arrapatuta bezala, gordetzen zituzten lekuan lertu dituzte; ez diete jasotzen utzi. Oraikoa, saguak gatu zarrari ortzak erakutsi dizkio! Eta ixil!

Nasser zuten arabe jendeak beren «jainko txiki»; eta lotsatzeko parragarria egin du. Asieran ba zirudin etzuela geiago bere erriaren zuzendari izan nahi; ain-

bestetaraño gorritua zen! Baño, etziztuzten onartu. Israelek dio 1949'tik euri asko egin duela eta orduko mugak oso atzean geldituak direla; pakea egitekoz muga berriak beharko direla sartu.

Eta ainbeste istilluren artean, bai baten nola bestearen lagunak kanpotik begira! Eta beharrik. Errusiak ez du R. A. U. delako arabetarren alde azazkalik mugitu. Ipar-Amerikak berriz, begi onez ikusiko zuen juduen jokabidea; baño, beren laguntzarik gabe baliatu dira.

Gasolinaz da orai kontua. Urre beltza, gaurko egunean. Europak arabe oiengandik du bere iturria. Zer gertatuko da? Bialduko da? Bialduko dute orai arte bezala? Inglaterrari ezetza eman diete eta beste asko bildur dira. Ori gabe, beste norabait jo beharra izango litzake.

Eta bialdu nahi izan ta ere, Suez'eko ur-pasaia da biderik motzena, eta nor sartu an? Gañera, duela urte batzuk gertatu zen bezala, zombait itsas-untzi baldartu ta erdian geldituak dira. Ori da ez auztetako eta ez arditako egotea.

Denborak esango du; baño, Israelek ogeita ameika eskutik du oraiokoa eta nik uste baliatu nahiko duela. Ala balitz oraiok lur estutasunetik atera eta aundituz joango da.



ESPAÑIAKO GAUZAK

—Después de la suspensión de las conversaciones hispano británicas sobre Gibraltar celebradas del 5 al 10 de junio, Gran Bretaña anuncia su decisión de someter a Referendum entre la población gibraltareña para que esta manifieste si prefiere mantener sus actuales vínculos con el Reino Unido o pasar a la soberanía española.

—Ha sido firmado un acuerdo hispano soviético por el cual España comprará petróleo crudo; a cambio Rusia, entre otros productos, adquirirá aceite de oliva.

—Se ha celebrado las VIII Jornadas de Acción Católica, tratándose principalmente de la elaboración de puntos de vista y sugerencias en orden a un posible estatuto de la Acción Católica.

—Ha terminado la Conferencia de Metropolitanos españoles.

—El Ministro de Información y Turismo Sr. Fraga Iribarne inauguró en Gijón «la Nueva Hostelería del Molino Viejo».

—El Jefe del Estado realizó una jira por Alicante, Castellón y Tarragona inaugurando en esta capital catalana el nuevo edificio de la Jefatura Provincial del Movimiento, y la planta petroquímica de «Dow Unquinesa».

—La superproducción de patata en la región de Levante plantea un problema de excedentes con pérdidas que se calculan en mil millones de pesetas, habiéndose dirigido las Cámaras Oficiales Sindicales Agrarias al Gobierno en petición de adquisición de excedentes al precio de 2'50 ptas. kilo.

—La Comisión de las Cortes ha aprobado el Proyecto de Ley del Movimiento.

—La Revista «Actualidad Económica» dice en un editorial, comentando la situación de la economía española, que «estamos ante el peligro de una inflación crónica y estructural que no podrá ser detenida por vía puramente monetaria y crediticia».

—No hay peligro de «Marea Negra» en la Costa del Sol como consecuencia del percance sufrido por el petrolero «Russell H. Green» cerca de Málaga.

Festivales de España EN TAFALLA

Durante los días 25 al 29 de junio se celebraron en la Ciudad de Tafalla los Festivales de España.

El día 25 se iniciaron con la actuación del ballet: «Raza Aragonesa» pronunciando el pregón de apertura el Académico de Bellas Artes de San Fernando Ilmo. Sr. don Pedro Echeverría.

El día 26 tuvo lugar un concierto polifónico y folklórico a cargo de los Coros de Tudela y Tafalla.

El día 27 tuvo lugar el Gran Festival de la jota navarra en la que actuaron los mejores cantadores de jota navarra. Complemento de la fiesta fue la destacada actuación del Ochote «Itxaso» de Pamplona y el grupo de dantzaris de Tafalla que debutó en este día con acierto.


El día 28 se celebró el homenaje al gran compositor navarro Felipe Gorriti, hijo de Huarte Araquil, que vivió parte de su vida en Tafalla y posteriormente en Tolosa. Intervinieron la Coral de Falces y la Orquesta Santa Cecilia con obras del gran músico huartearra.

Por último el día 29, San Pedro, actuaron los famosos Ballets de Olaeta y la Orquesta Filarmónica de Bilbao.

Nuestra enhorabuena a la Ciudad de Tafalla por el éxito de los Festivales que colocan a esta ciudad y a Navarra en plano superior como corresponde a nuestra tradición musical y artística.

EUSKAL LIBURU BERRI BAT

Seigarren Paul Aita Santua ta "Bigarren Batikano" Batzarra



Aita Yulen Yurre Kaputxinoak orain bi urte dituela euskeraz idatzitako liburu berri bat argitaratu zuen, Ogeitarugarren Joan Aita Santua ta "Bigarren Batikano" Batzarra izena zuena. Liburu onek Joan XXIII garren zenaren bizitzako berriak eta «Bigarren Batikano» Batzarra edo Konzilioaren lenengo aldian gertatu ziren xehetasun eta goraberak erakutsi eta kondatu zizkigun.

Beste liburu baten falta geunden Konzilioaren bigarren aldiaren berriak irakurtzeko eta baita ere Seigarren Paul Aita Santuaren iritzia, xede eta lanak XXIII Joan Aita Sanduaren asmo eta bide berberetan lanari jarraituz.

Liburuak badu aintzin solas bat, edo itzaurreko bat, Egilleak berak idatzia, eta ontan Aita Yurrek bere elburu eta xedeak agertzen dizkigu.

Gero amaseigarren orrialdetik irureun ta ogeitamaugarrenenaño Aita Yurrek oso ongi eta argi «Bigarren Batikano» Batzarren bigarren, irugarren eta azken aldiaren gertaerak eta lanak azaltzen dizkigu.

Ondarrean, azkenez, Itz-zerrenda bat, iztegitxo bat Aita Yurrek jarri du euskal itzak obekienik adierazi eta argitzeko.

Liburu bakotzak 90 pezeta balio ditu eta salgai dago Altsasuko Aita Kaputxinoen Komentuan.

Liburu au nai duen edozeiñek izkiri beza zuzenbide oketara:

AITA YULEN YURRETAR, CAPUCHINO.
ALTSASUA — (Nafarroan).

Orrialde oketatik ar bitza Aita Yulen Yurrekoak gure zinezko goresmenak, gure euskal izkuntza maitean eman baitigu «Bigarren Batikano» Batzarren xehetasun guziak. Eskerrik asko eta ekin gure euskeraren onerako.

ESKUALERRIKO LEIOA

Eskualerriko bertsolarien Txapelketa Nagusia ederra izan da. Denbora ona, sayo paregabea eta eskual giro jatorra. Jende asko Anoetan.

"Au da zerua", aditu nion eskualtzale bati. Goizean zen. "Auxe da ifer-nua" esango zuen atsaldetan. Ortaz mintzatu nahi nuke orai.

ALDERDI ONA: Anoetako txapelketa ikusi ta eskualtzaletasuna goraka dijoala esan behar. Ango giroa!! Bertsolariak goi-goieneko mallan egonak dira. An ez da txarrak baztarzerik: al den obekiena bat aukeratzea baizik. Esan ginezake ez dugula uste ain saio zoragarrikerik inoiz ikusi dugunik. An etzen anka baldarreko tresna txarrik.

Erabakiak artzeko garaia garratza sumatzen zen. Denak on eta ezin denak onartu. Mai burukoak ez dituzte erabakiak biotzkadaz artzen. Ba dake denak argi ta garbi liburutan ateratzekoak direla. Eta bestalde ez da bertsoa behar bezala ausmartzeko erarik. Beste nornahik bezala uts egin dezakete...

NEGARGARRIA: eta oso negargarria, gañera, atsaldako gertakizuna. Zertako ainbeste zalaparta, ixtilu beltz eta antzarka? Bertsolariak etzuen obenik. Gure txapelketa nagusian gain mailleko saria zama bat bezala artu behar bertsolariak!! Berak ez duela obenik aitortu beharra, obena balitz bezala eta pekatu bat Xalbadorrekin bigarren saria irabaztea... Nun gaude?

Beste bide batetik jo beharko dugu emendik aurrera, gure nortasuna eta jendetasuna anka azpian utzi nahi ez badugu. Orroka ari den jende-alde orren esku utzi behar erabakiak artzea. Elitzake mai burukoen beharrik: erlejutxo bat artu, telebistan noizbait egiten zuten bezala, eta esku-zarten minutoak kontatu... Auntzaiak bezala fixtu egiten ikasi eta erritar geiena sar-arazten dituen bertsolaria txapeldun. «Reina por un día», bezala...

EGINGO DA BESTE TXAPELKETARIK? Ez da aski egin behar dela esatea. Jainkoari esker bertsolari asko dago Eskualerrian. Azkena baño len, bi urtez lan asko egin beharra izaten da ixilian. Eta dena, erriz erri sayatu ondoan, bi urtez lan egin eta ibili; aztapu guziak zelaitu ta lotsagarrikeri au ikusteko azkenean.

Joko guziak beren legeak ba dituzte eta galtzen jakitea da bat... galtzea balin bada erritarra baño obeago bat aurretik gelditzea. Eta gizontasunik ez balin bada gure artean, Anoetako gertakizuna berriz ikustea baño obe izango litzake bertsolari txapelketak betiko kentzea. Gaizki gelditzen gera bai gizon eta bai eskualdun bezala.

Ori da etzeko sua bere autsez estaltzea.



APEZ AUNDIA



Alaxe izan zen, gisa guzietara, Don Jose Apeztegi, Buskelduna zen, baztandarra, Erratzu Apeztegioko semea. Lege ikasketak Salamancan egin zituen. 1716-tik Iruñeko kanonigo, 1727-1746 tartean, kanonigoen Buru, Prior izan zen. Apez on ta yakintsua. Obispo orde, bein baño geiagotan, egin zuen.

Luzetasunaz famatua zen. Salamancan zegolarik, "el altísimo" deitzen zuten. Ez omen zen denbora artan España guzian ain gizon luzerik. Ala ere gizon berdina eta ongi egina. Bein batean, Felipe V erregea bazkaltzen ikustera goan zen (alaxekoa zen oitura) eta erregeak, berzeak baño aunitzez gorago ageri zela oarturik, ya alkiren baten gañean zegon galdetu zuen. Ezetz. Orren luzea zela. Ez arras sinesten eta, yende artetik aterazi zuen. Lotsatuxea erregeren eta onen ondokoan aitzinean agertu bear izan zuen. Erregek, orren mutil ederra ikusi eta, bere Guardiakoia izatea eskeñi zion; arek, eskerrak emanaz, Epistolaz ordenatua zela ta Yainkoari eskeñia zegola.

Iruñeko eliz nagusian, klaustrotik sartzean, aldioro, an ageri den Ama Birjinaren oin muturrari, bera zango puntan jarri gabe, musu ematen zion. Gizon luze batek, besoa luzetu bear du, oin ori beatzez ukitzeko.

Erratzun il zen 1746 urtean. Katedraleko Barbazanapean lurperatu zuten. Il obiak bi sepulturen luzetasuna zuen.

Blas Fagoaga Apez Yaun zenak izkiriartua.



ELIZAREN ITZA

BATIKANO II BATZAR NAGUSIA

Kristau batasunari buruz

Protestanteak. Erdi aroaren azken aldera, Erromako Eliz kato-likotik berexi ziren. Ainbeste urtez kristau bizitz bera eraman genduelako, antz eta kidego aundi bat nabaritzen diegu gurekin.

Sinisgaietan eta gogo-bizitzan alde aundiak dauzkate ez gu-rekin bakarrik, beren artean ere bai, ez da errexia, beraz, zer eta nola dauden beren egonean azaltzea.

Bateratzeko irrikia eta Eliz Katolikoarekin alkar aditzeko go-goa ez da oraindik nabari denetan, baño uste da an eta emen sortu diren kezka eta urbidu naiak indar artzen eta ugaritzen joango direla.

Alde eta oker guzien sustraia jo ditek, Liburu Sainduen azal-penekoa, ots, esaten dute bakoitzak bere iruditura, iñoren eras-kusbiderik gabe, obekiena derizkiona ontzat artu bear dula; ez da arritzekoa aini gauz zalletan norbere alde joatea, erakustunakin ere lanik aski bada zuzen jokatzeko gure gogoko ez diren arazotan.

Itzketatzeko, beste aldeko kristauak garbi aitortu bear dute Jesukristo Jainkoa dala, Jaun eta Bitarteko bakarra Jaungoiko eta gizonen artean, Jaungoiko bakar diren Aita eta Semea eta Espiritu Sainduaren aintzarako. Au ola sinisten dutenen artean ere badaude aldatetako Kristo beraren, Eroskude, Elizaren egiteko eta Mariaren artu emanetan, salbazioko gaietan, baño Kristoren billa dabilta, elizaren iturri eta ardatz bezela, eta Arekin bat egin nairik, beste gañerakoekin ere batzea nai lukete, beren fedea aitortuz mundu guzieren aurrean.

Liburu Sainduendako gure senide berextuok duten maitasun, begirune, gurtzak urbill, bultzatzen diote Biblia arrataz eta asperu gabe aztertzea, Ebangelioa baita «siniesdun guzientzat, juduentzat lenik, elendarrentzat gero, Jaungoiko aren kemena osasunerako» (Rom. 1, 16).

Espiritu Sainduari deituz, Jaungoikoaren billa dabilta Liburu Sainduetan eta Arren itza entzuten dute Kristogan, aurretik igar-leek izendatua, Jainkoaren Itz gizon egia. Beroitan Kristoren bizitza opatzen dute, Arrek gizonen zeruratzeko erakutsi eta egin zuena, bere eriotz eta piztuera batez ere, baño Kristok Elizaren buruzagien esku egotzi zuen irakaskintza (magisterio) Jainkoaren itz idatzia, utsik gabe, erakutsi eta azaltzeko ez dute opatzen, ez aitortzen. Nola naidala elkar itzketan Liburu Sainduak tresna propiek dire elkar aditzeko batasunari buruz.

PUERTO RICO (ITXASOZ ARUNZTIK)

Migel Intxaurren Apez Yaun Agurgarriak itxasoko beste aldean bizi da, bañan araño gure errebista eltzendabidela eta berak ere gogoz irakurtzen oi du Karta bat idatzi digu eskerrak agertzen eta baita ere bere poza azaltzen, eta onekin batean idazlan bat ergitaratzeko. Beian dagona berarena da. Migel Intxaurren Apeza nafarra da Betelu aldean sortua eta aspaldin, Españiako azken anaiarteko gerra baño lehen, Iruñeko Seminarioan Erakasle izana. Euskaltzale sutsu, gizon argi eta yakintsua da. Euskeraz ikasteko Gramatika edo Ikasbide bat idatzi zuen, eta gure Apezgaitegian apezgaiak euskeraz ikasteko egokia dena. Agur xamur bat Iruñetik, On Migel, eta egunen batez etorriko al da bere sorterritik kanpora geiago ez joateko!

Alderdi ontan, euskaldun gutti. Eta bakan. Naparrak ere ez geiegi.

Zortzi urtetara dijoa onera etorri nintzela, mixiolari bezela. Len mariñela nintzan. Ontzitan ibiltzen nintzan, ara ta onera. Guda ontzitan, kapellau bezela. Eta xahartuxe egin nintzanean, lurrera jo nun. Baño Madrillen ere, alperkeriaz aspertuta, berriz lantoki berrira etorri nintzan.

Zer dagiten emen?

HUMACAO-n bizi naiz. HUMACAO, nere ttikitari Iruñe bezelatsukoa da. Erri aundi bat. Errian ere lan egiten dut. Baño, nere taldea bi baserri dira: Caserio Padre Ribera eta Patagonia. Baserri aundik. Bakoitzak 1.750 gizaki izanen ditte.

Zer moduzko kristau diran?

Fede gutti, moskor zenbait eta lapurrek ere badirela, diote. Eta "drogistik" ere bai.

Nola ditekori?

Zuk ezpadakizu, nik ere ainbeste dakit. Ni egunez banabil beren tar-tean. Baño, illuntzerakoan, laxter aldegiten dut andik!

Elizera joaten diran?

Ez, joan bear luken guzik. Baño badijoaz batzuk, egumetik egumera, geiago. Ezkondu ere egiten dira batzuk. Bataiatu, geienak.

Lehendik ere, gende otza baitzen emen. Apez bear aundia. Erri asko, apez gabe egon omen dira, españarrak emendik aldegitan, berrogei urtetaraño, batzuk!

Garai ortan, inun diren protestante oietatik sartu dira ugari, eta toki askotan nagusi dira.

Mesederik bai ote dagiten?

Eta egungoan, nik uste, asko dela. Urren arte bada!

Migel Intxaurren, apezak. HUMACAO, Puerto Rico.

"Pinpirrin"-ek, erritik etxerakoan

Errira iausti bear izen dut
etxeko lanak utzirik;
aspalditikan ontara nago
ongi ta bizkor ezirik.
Guk baserrian beti egonez,
ezin genuke bizirik;
baño maizago beiti iausteko
nik ezin artu astirik.

Errian egin nere aferak;
lagun xaharrak ikusi;
elizan otoi, zeru bideaz
zerbait entzun ta ikasi;
musean ari eta pozikan
egi ta gezur nahasi;
Yaingo onari etzaio, ustez,
irudituko itsusi...

Ustegabea ioan zait eguna,
ta ohargabea gaua;
orain goizean «txintxo antzera»
etxeari buruz noa:
«Txintxo antzera» erran bearko,
egiak dezan lekua:
oso txoroen gisan bai daukat
goizalde ontan burua.

Txoriak kantuz abiatu, alkari
zerbait diote; oken izkuntz
ain arrigarria ulertzen dunik
bai ote? Maurizio gure txiatulariak
egin dik zenbait egote txori
entzuten, utzirik dana,
aitzur, aizkora, makote...

Ortxen badator (mezara edo...)
Joxepa Burdintzako: dena galde
ta ikasi naia, berriketari
gaixoa: Nik oni nola sartu ziria?
Zertan nabillenekoa? Bidetik
iges egin bearko! Au duk
usteketakoa!

To!... Antxe doa Patxi Larreko,
goizean goizik leikirik; sasi
basterrak erne ikustera,
artetan baden erbirik:

Amak ezdio gaur ere emanen
gosea iltzeko iakirik eizi
kokkor bat arkituzteko
ezbadu izan zoririk.

Ardo beltzaren egarri nago;
edan nezake atsegiñez; emen
ezdago eskatzerikan ez euskeraz,
ez latinez; unako iturri iori
ontatik xurrupaldi bat eginez,
asi bearko aldapan gora mendi
aldera zin-zinez.

Alzaberriko Joxek badakar
astoa egur zamakin; kantari
dabil gure mutilla goizik egin
dun lanakin; zuzen dabillen
gizonak eztu lan au egiten
gauakin; nori ebatsi dion egurra
nil al banezake iakin!

Eskui aldeko belaitxo ortan
mutil ta neska itzketan...
banekin lendik asi zirela
eztaletako lanetan; Ezkontzak
dakar buruauste ta ixtillu
franko etxetan... gauz au ez
bedi beñere artu irri, trufa ta
txantzetan...

Mendi lepoa gora zeok, ba!
mutillak, auxe nekea! gorputza
ari duk eska ta eska bide
bazterran iartzea; Alo! goazen
mendi lepora!! ia ageri ukan
etxea: orduantxe bai, ederk
zeok pipatxo bat erretzea!

Goi oketatik begiratzeaz
ni ezin aspertu naie; zenbat
baserrian, emen ta or! ederk
ikus daiteke! Baserri otan
zenbat zorion, lan, atsegin eta
neke!

ixiltasuna, bakardadea,
aldiz asarre ta bake!

Noa emendik, aldapan bera;
alperrik da luzatzea; sermoi
galanta asmatu, antxe daukat
emaztea; erratsa balitz etsiko
zidan pozik etxeko atea; bein ta
bietan logela izan dut etxeondoko
labea.

An agiri dan baserri artan
seme bat dute frailea; beste bat
beriz Ameriketara, diru aunitzen
iabea; Misio lanetan dabil alaba,
animen salbatzalea; seme gazte
atera zaie... etxeko ontasun
ialea...

Besten bizitza utzi bakean,
nereakin daukat lana; etxera
urbiltzen ari naiz, eta leiotik
erne Susana; emazte on ta
biotz ezta! etorri zaitez nigan!
ikus ongi nola ez nagon zuk
uste bezein edana!

Amabost egun emen sarturik,
lanean egun guzian; ez dut
merezki atsedentxo bat noizean
beinika errian? Lanean ariz,
Susana maite, miña egiten zait
gerrian; gaitz au sendatu bear
badugu ari bearko musian!...

Itz leunekin ezin txoratu
nik orain nere emaztea; oherena
dun nere ustean bera bezala
ixiltzea; al bezein laister
aizkora artu, lanean sendo
astea; amabost egun io lanean!
ta... enginen diot bestea...

«IBARRONDO»

"Mendiyak dauzka bere inguruan"

Bazaudete nunbaiten Bera'ko
mendiyak. Nunbait Bidaso ibaya
ta erreka ur garbiyak

Ainbat etxe ikusgarri ditu
karraketan. Zenbat baserri
abeatsa bazter zabaletan!

Orio nagon erriko eskintxo
batetik. Larun mendiya errezki
ikusten dakit nik

Bere magalian Bera zabaldua
dago. An ni egun batian nintzan
onez jαιο.

Zuk, Jauna, nai izan zendun
orrela izatia, gaztetasun urtiak
antxen iraultzia.

Ezta olako pozik, ura zena
bañon; guraso santu artian t'anai
arten zorion.

Erriko besta ederrez San Esteban'
etan, Besta Berri ta Eguerriz
negon zeruetan.

Itzauteriyak ere beren
zerbait zuten. Mairu izugarriyak
izitzen ginduzen.

«Glin-Glan gaztari erriak
«Urte Zar» egunez; «zingar-
arraultze» eskuan «Ortze-
gun» gizenek.

«Marautxe bat» eskatzen
Santu Guztietan. «Ubitxo»
egunak ere oroigarri ziran

Jun ziñeten betiko ta oroimen
zerate. Eztitan nere arima
orutzen duzute.

Zuk, Jauna, egun batian
«zuz ortik» diozu. «Etzaude
ongi emen: bertzera jo zazu».

«Etzaitut nik emen nai;
kaltetako dezu. Utzi erri
maitia, t'alde egin zazu».

Eznintzan ni gelditu nai ez
ta entzun gogor. Onera jo
nun, Jauna nagi gabe bizkor.

¡O Bera, nere erriya, zaitut
biotzian! Nigar malkok
dijuzkit zugaz oroitzian.

¡O Bera, nir'erriya egiz
zeruko ate, agur zure jaietan
ta beste bat urte.

JOAQUIN ALDABE

Saldis'ko gazte batek egindako bertsoak

Yoan dan Azaroko numeroan «Saldiaso Erriari» deitutako bertsoak «Saldiaso gazte batek» paratutakoak argitaratu genituen. Ona emen amabi bertso iardetsi gisan «Saldiaso gazte batzuk» jarritakoak, eta Saldistar «Artzai Deia» delako euskal agerkeritik artuak.

(«Txarmangarria zera»... bezala kantatu ditezke)

— 1 —

Bi urte ditut falta Saldis'ko
erritik, baño ango berriak
Felixek eman dizkit; Au dena
iakiteak kalterikan ezdik,
ezta eskapatzeak Karnabaletatik.

— 2 —

Ikusi gaztedia nola den portatzen,
bata bestearekin nola diran
nasten; Ola baño obekio gera
gu iostatzen Andre Madalen
kantuz baigera dantzatzen.

— 3 —

Gizon formal dela berak du
esaten; Arekin dabillena ezta
lotsatuzten; Usutxo etxera
egunaz da egatzen gauaz
dabillen ontzak loi guziak
biltzen.

— 4 —

Primavera baño len negua
eldua da; Arbol ostoa daude
elurpean ill-da; Ibilkizun
oientzat ixpillu auxe da;
usteldu ta baidade orbelan
antzera.

— 5 —

Ona nolakoa den gure Joxen
otza naiko ardo edan-da egin
du ametsa; Bide bazterran jo
du zugaitz adar motza,
lagunakin ustean arkitzen da
utsa.

— 6 —

Illargia ikusi du zerutik
begira ezin zelako jetxi
lurretikan gora; Katalin
aundi ori nitaz kupi zera
eznaizelako gerta gizona
bezala.

— 7 —

Goizian pestarako karterak
txin, txin, txin; Gauan
etxeratzen da bi esku
utsakin, engañatu da Patxi
bi itz txoreekin inguratu ta
bego eun kalabazakin.

— 8 —

Pauso bat aurrerako ta bi
atzerako, tabernan sartu dute
gaua pasatzeko; Ernatu da
goizian kopatxo artzoko,
xo, xo! esaten dio ixill
egoteko.

— 9 —

Guardasola besoan burua
kaikuan, laister egertuko da
plaza bazterrean; Presentatzen
bazera beraren aurrean,
Laister sartuko zaizu Plazako
zokoan.

— 10 —

Plaza txokora joan da botella
du autsi, orain gelditu baita
lagun gabe Patxi; Gaban
etxeratze ezu beldur gutxi,
atzokoa oraindik ezpaitzaio
jetxi.

— 11 —

Ez ba ipiñi aita

— 12 —

Egitera noa aita ni
testamentua, izateko zuretzat
seme bat zintzoa; Eta ez
utzitzeko zure konsejua,
auze da bai neretzat betiko
asmoa.

LESAKA



Lesakarrek Iruñishemeek bezala
San Permin dute Zaindaritzat. Uz-
tzaillaren seigarrenetik, San Permin
egunaren bezperatik aurrean besta
ederrak, fama aundikoak, antolatzen
dituzte.

Ona emen Lesakako dantzariak
ibaigañeo zubi-beraldan aintziñeko
dantza ikusgarri bat dantzatzen.

JAUNGOIKOA BAKARDADEAN

Bakardadean,
Laño erori txistularian
eta euri zalapartsuan
iraulka,
joan nintzaizun;
—Zu niganatzean—
aizeak zokoratutako ostoa igarra
aizeak makurtutako
zugaitz aspertua.

Gure orduko urruti bizitzea
gau illun geldia.
Oin otsak atean,
lorea ere bai
—eder samindua—
urruti egotea,
itxurik gabe itxaropenak galduak,
eta naigabea.
Ur kaskarin eta zauritutako
ibai laburra,
gau luzetan
eta egun argitze otzetan
erri miñez mindua.

Orduan izan zan,
Gauaren ilun ikara nere zañetaraño sartzean,
illun naigabe aundienak nere anima zapaltzean
eta nere aurrebidea bakarregi zaidanean,
orduan izan zan
nere barrango oyan illunpetik altxa ziñana
aizatuaz ekaitza ta ixiltasuna;
zure begiratze
uridin eta garbia,
bas auntz zaurituaren eskuetaraño zabaldu zan
inguratuta neukaten itzal beldurgarrien inguruan.
Orrenbeste aldiz iges egindako argiak
zarrada egin erazi nere gorputzari.
Berriro basoa,
egazti abestia
edo atsegin toki ezkutua.
Gero,
zure begiratzearekin txoratuta
egunaren erorian
itz egiteari utziaz
ausarki ta leunki
ixilkuntze luzetan sartu nintzan.

Orrela, su ta garraz egindako
zeran Jaungoiko on, eder eta
urrutikoa besteak ez bezelako
arrasalde batean zereganatu
zenuen itxaso belarrez betetako
nere ugarte urrutikoa.

JOSE INAZIO MUGURUZA Iruña

MENDIZ

GAZTEAK ETA EUSKERAZ

Aunitzetan gauz bat aditu dut: Pena dela gure izkuntza ainen polita eta garbia galdutzen nola ari den ikustea. Ni eznaiz euskeraz mintzatzen polita edo galteko arriskuan dijalako, ni euskeraz mintzatzen naiz euskalduna naizelako, gure izkuntza munduko azken dialektoa izango balitz ere, berdin mintzatuko nintzake, ala izango nintzelako.

Bertze gauz bat aunitzetan ikusi dutena: Euskera mintzatzea arrokeriz, euskera gauz aundia izango litzaken bezala. Euskaltzalea izatea ezluke arritzezko gauz bat izan bear (tamalez Nafarroan ala da) normala baizik; nere iduriz atzeratuak gaude puntu onetan.

Egun batean ni pasatzekoan esan zion mutill batek bertzeri: Or dijoan ori agitz euskalduna da. Eznion deus erantzun, baña pentsatu nuen. ¿Agitz euskalduna ni?

Ez dakit zergatik, beti euskeraz mintzatzen naizelako izango zen, aiek biek normaletaz zeuzkaten beuren buruak naiz euskaldunak izan erdera gaizkian mintzatu.

Leenago jarri duten bezala erridicula iduritzen zait euskera arrokeriz mintzatzea, bertze euskaldun batzuen inguruan. Madrid edo Sevillan espaiñoleraz arrokeriz mintzatzea bezala ikusten dut nik emengoa.


Gure errietan euskera gero eta bazterrago utzitzen ari gera, nola jende «fiñak» erdera bakarra dabilkaten uste dugu gu ere geiago gerala erderaz mintzatu, gure errietako neska «fiñ» bat baña gauz erridikuloagorik ez da deus izango, sekulan izango ez diren gauz bat uste dute direla.

«BERRITZALLE»

Españiako Aizkolarien Txapelketa Iruñan

Datorren Uztaillaren 9'ean, Sanpermiñetako igandea, Espāniako Aizkolarien Xapelgoa Iruñeko Zezen Plazan, goizeko amarretan, yokatuko da.

«Espāniako Aizkolarien Xapelgoa» esateko ezdu esan nai Espāniako lurralde guzietako aizkolariek etorriko diranik, Euskalerritik kanpo ezbaidera aizkora-apustuak egiten, ezta aizkora-zaletasunik izaten ere. Aurten bi Aizkolarien Xapelketak antolatu beharrak ziran, bata Donostikoa, Maiatzaren 14'ean yokazu zena, eta Gorritikoa Berekoetxea berritxo txapeldun gertazu zan. Xapelgo onek «Euskalerritik Aizkolarien Txapelketa» izena zun. Beste Xapelgoa Iruñean yokatu behar da eta izen berbera ezjartzezik «Espāniako Aizkolarien Txapelketa» deitu izan zaio, baño Euskaldun aizkolariek besterik ezdira azalduko zera gure Euskalerritik landa ezta aizkolaririk, Euskal moduan ebakitzten duen aizkolaririk beintzat.



Berekoetxea, Gorritikoa, Espāniako Aizkolarien Txapelduna.

Lau aizkolarik izena igorri dute Iruñean agertzeko, eta Euskalerritik aizkolaririk oherenak dira: Latasa, Astibia eta Berekoetxea, naparrak; eta Arriya, giputza.

Berekoetxea berriz ere txapeldun? Latasa? Aizkolarik gazteak? Laixter ikusiko!

Lana: Bakotzak lau kanaerdiko, lau 62 ontzako, bi 72 ontzako, eta bi 80 ontzako, ebaki behar izango ditu.



Donostiko Aizkolarien Xapelgoan denbora zakar egon baitzen eta aizkolariek larri ibili ziran bere lana bururatzeko. Azkenengo egurrean Astibia aintzinean egoten bazan ere ler eginda, indargabeturik etzen gauza bere lana bukatzeko. Arriya lurrera erori eta txutik eginda ere bere egur guziak ebaki zitun, irugarrena geraturik, Berekoetxea eta Latasa aurrean egonik.

Astibia goatzi batean etzinda deramate. Iruñeko Zezen Plazan, Uztaillan, bero geiegi egingo duanaren bildurrez gaude. Goizeko amarretan asiko da, beharrik! (Zubietaren Fotoa)

TXORIAK

Jaungoikoak egin dittu txori aunitz. Nik ez ttut denak izautzen. Izautzen ttutzen txoriak dira: kardelina, txantxangorria, epetxa, ur txoriya, itxe-txoriya, buru-beltxa eta karpinterua.

KARDELINA txiki samarra da; kolore aunitz dittu: oriya, gorriya, grisa, eta bertze kolorik. Txoriyok kabik mayatzen edo aprillan egiten ttuzte. Pollitak dira kabik, ttikiyak dira. Egitten ttuzte goroldikin, ardin illikin eta arbolatan izaten den goroldi xuriyakiri. Agitz ongi kantatzen dute Kabik egiten ttuzte arbolatan, bortz edo sei arroltze patzen ttuzte. Arroltzik patu ta amabortz edo ogei egunen burun atetzen dire kumik; kumik ere pollitak dira.

TXANTXANGORRIA kardelina baño pixkot aundixigua da. Lepo azpiyin gorriya dute. Arbolatan egiten dituzte kabik. Txoriya unek lau arroltze edo ola patzen ttu. Arroltzik patu eta amabortz egunen burun, edo ola, atetzen dire kumik. Txoriya unek kukuri azitzen dio kumia, Txantxangorriyak zizarik yaten ditu. Maizik eztute yaten. Otza dutelikan kuxkurtzen dira.

EPETXA, ttiki ttikiya da. Kolore grisa du. Ongi kantatzen du. Ola egiten du: tturrit, tturrit, tti, tti, tti. Burkaitzetan egiten dituzte kabik. Goroldikin eta ollun lumakin egiten du kabia; kabin barrenin ardin illia izaten du. Epetxak zortzi edo bedetzi arroltze patzen dittu. Belar aziya eta zizarik yaten dittu. Ikaragarri pollita da.

UR-TXORIYA aundi samarra da; kolore aunitz dittu. Buztana luzia du txoriyak, pikua luze samarra dute; ok kanalko paretta eta pres ondun egiten ttuzte kabik. Kabik egiten ttuzte belarrakin bortz edo sei arroltze patzen ttuzte. Lurrin ibiltzen direlikan, buztana aunitz mugitzen dute. Txori unek arrixtua bezala egiten du uran gañin pasatzekin. Ikaragarri pollita da.

ITXE-TXORIYA aundi samarra da. Grisa da. Txori unek paretta zollun egiten du kabia. Txori unek kardelinkan iltzen dittu. Txori unek maiza yaten du, batzuk ogiya ere yaten dute. Arroltze bastante patzen dittu. Ola kantatzen du: pi, pi, pi.

KARPINTERUA txori ederra da; kolore azula bezalkua du; piko luzia du. Txoriya arbolatan pikoka aitzen da. Pikoka ari delikan soño aundiya sartzen au. Txoriya unek arbolko mamurruk yaten ttu. Arbolatan egiten ttuzte kabik.

Maria Lurdes Apezteguia - 11 urte. SUNBILLA

IKASI, MIKASI...

INIK EZDET GEIGO ARDOIK EANGO...

- Nik ere beorren "IKASI, MIKASIN"-n nai nuke nere izena ikusi.
- Ikusiko dezu datorren illabetean, baño ortarako arrazoï edo aitzaki on bat bearko degu.
- Miljoxe ta Mielanton, nee lagunak bezala, galde batzuk eingo thiot.
- Esan, bada, lendabizi, ze izena dezun.
- Martijoshe Lekuona Juanmartiñena.
- Galde, orain, nai dezuna.
- Beorrek jarri zun "IKASI, MIKASI"-n, erlijio katolikoa arrazoiezkoa dela, ta erlijiotan egokieta.
- Ala jarri nuen, eta ala da.
- Arrazoiezkoa bada, ¿nola erakusten dizkigu aithu ezin dezakeun siñismenak?
- Orrek, ¿ze esan nai do?
- Gure erlijioa misterioz beteik doala, ta ezdela arrazoiezkoa.
- ¿Kontuz, Martijoshe, kontuz esaten dezunarekin! Gauze bat da arrazoiaren egotea, ta beste'at arrazoiaren kontra...
- Nolanai, siñismen asko dee aithu ezin dezakeunak.
- Aipatu zazu bat.
- Lengoan, Trinitate eumin, eondu zen gure apez jauna ordu kuarto batez, esan da esan: Jainko bat besteik ez da. Jainkoak zer-izan (esenzia) bakarra du, baño iru nor-izan (persona) ditu. Misteriorik izkutuena da. Iru nortzu (persona) auetan ez da bat bestea baño aundiago, ez lenago; alare Aitangandik da Semea, ta bi nortzu (persona) auengandik Gogo Gurena (Espiritu Santua)... (Orixe - MEZA-BEZPERAK).
- Ongi esan do zuen apez jaunak. Irutasun Santua — Trindadeko Misterioa —, beste misterio guzik bezala, ez da arrazoiaren kontra, baizik arrazoiaren gañen. Eliz Ama Santak esango baliguke Jainko bat dela eta iru Jainko, orduan bai arrazoiaren kontra izango litzake. Baño ez digu olakorik esaten, baizik: Jaungoiko bat, bakarra, dela, baño Jaungoikogan iru persona direla: Aita, Semea ta Espiritu Santua.
- ¿Beorrek igarritzen do nola diteken ori?
- Ez dot igarritzen, baño siñisten dot, Jesukristok ola erakutsi zigulako.
- ¿Erljioak etziun jarri bear aithu ezin dezakeun siñisteik!
- ¿Martijoshe, etzazu olakoik esan! Fede gabe —Jainkoai ta gizonai siñistatu gabe—, ezin gera bizi. Ostatu batera edo botikara joaten zeranian, ¿pentsatzen dezu belenola emango ote dizuten? ¿Egunero ez dugu siñisten ikusi ezdituzun gauzetaz? ¿Ameriketean, edo Txinan eondu zera?
- Enaiz eondu, baño amerikano asko ikusi izan thot; txino ta japonar batzuk ere bai.
- ¿Nola siñistatzen dezu, bada, ikusi ezdituzun gauzetaz?
- Eondu deenai adituz.
- Gizonai siñistatzen badiozu, mutiko ta neskatoak beren aita ta amai siñistatzen dieten bezala, ¿ez dituzu siñistatuko Jainkoak erakusten dizkigun siñeskaik, naiz guretzat orain misterioak izan?
- Egia da beorrek diona: unik siñisten diete athe ta amai, ta gizonak siñistatzen diegu dakitenai. Baño unik ekusten dute, aunditzen deenin, egik zeela athe ta amak zieten; guk, ere, egiztatu dezakegu, nai izan eskeo, bestik esaten diutena egi edo gezurre den...
- Ez beti Martijoshe; ez beti. Mundu ontan ere badire misterio asko. ¿Badakizu nola etorri diteken argia eta indarra alambre batetik? ¿Nola ikusi diteken gizon bat telebisioz, naiz amar mille kilometro aparte egonda ere?
- Denboaz, gauze oitaz ere argi egingo dela ustean nao. Mille gauz badee, orain argi eta garbi, lenao misterioak zeenak. Lenao ¿etzuten uste gizonak illargia plater baten tamañokoa zela? Orain badakigu zein urrutu dagon, ze aunditasuna dun, eta baita ze pisua dun ere... ¿Ez du aditu beorrek nola amerikanoak eta rusoak are joateko asmoan deela.
- Bai, aditu det, eta, denbo asko baño len, ara joango dire. Baño, apartexo ere, badire beste mille mundu. Izar batzutara joateko, bearko lituke gizonak amar milloï urte, argian marñan juan da ere. Ta, pensa zazu argiak iruetan eun mille kilometro baño geiago lasterketan ibiltzen dela segundo bakotxean...
- ¿Jesus, Maria ta Jose! ¿Ze dio beorrek?
- Aditu dezuna.
- ¿Ain aparte dee izarrak?
- Batzuk biñepin, bai. Ta, teleskopioaz ere ekusten ez diradenak, ¿non ote dire? Aurki mille bider urrutigo.
- ¿Ordun, misterioak ere siñistu bearko ditugul?
- ¿Nai dezu, bukatzeko, kontu polit bat aditu?
- Konta beza, beorrek dakizkin kontu oitako'at.
- Orain berrogei ta amar on bat urte, Imozko mutill kozkor bat juan zen Erriberako erri batera. An ikusi zuanin nola gizonak, alorretik etorrita, bere anka zikiñekin matsak zanpatzen, esaten omen zun: —"Nik ezdet geigo ardoik eango..." Gero, kupela irakithen asi ta, azal eta zikin-keri guzik botatzen ikusi zularik, asi zen berriz ardoa edaten, zatotik eta basoatik. ¿Eta, Jainkoak diola grazia urte askotan edateko!
- ¿Siñistu ditzagun, bada, Martijoshe, Jesukristok iragarri zizkigun misterioak, naiz orain ezin igarri! ¿Aita ta ama guziak baño jakintsuagoa ta obeagoa da Jesukristo, ta, zerura joaten zeranian, ikusiko dezu egi biribilek zirela iragarri zizkigunak!
- Beorrek ola badio...
- Gizonai siñistatzen badiegu, ¿Ez da arrazoiezkoa Jainkoai siñistatzea?

A. ASTIZ ARREGI



ANDRES NARBARTE

Andres Narbarte Olaizola «Shal-to», Goizuetako semea, Txemeneko bordan bizi dena; bertsolari ona, sutsu eta trebea. Euskalerritik Xapelgoaren egun baño bat edo bi egun lehenagoan gaixotu, gaizkitu zan, etzun Donostira joan ahal izan eta beraren partez Arantzako Madariaga agertu zan. Daukagun azken berriak poztu gaitu, biotza alaitu digu: Narbarte lasterrez, Jesus amen batean, sendotzen ari dela, eta bikor dagola lanari eusteko prest eta bertsoan asteko gerturik. Zu ta denok kontentu gaude.



TEATRO GAYAREN KANTATU-TAKO BI AZKEN BERTSO

Arotzamenak (Txapelduna izan zan)

Txapelik gabe etorri naiz ta ementxen eman didate, Iruñaldeko euskaldunak re borondatia daukate; Pozaren pozez nere begiak negar malkuak daukate agur anai-arreba danoiri ta Donostira bitarte.

Narbartek (bigarrena)

Jurado Jaunak txapel aundi au eman diote Narbarteri. Eta nik orain bertso goxo bat kantako diet berari. Kariño pixka bat didatela Jaunak ez al da nabari? Ondo bizi ta urrengor'arte egun on pasa danori.

ERRIZ-ERRI



DONEZTEBE

AMABOST ALDIKO AZOKA

Iduri du, azkeneko illabete inguru ontan, txekorrek izandu duten goraldia sariatzen, 7 pezetaren bat kiloan bizirik, iraupendu dala. Bizitzako bei eta migak ere, goraldi erabakitzen dute beren balioa. Beste abere guztiak, naiz txerrikumeak nola txerri gizenak, aragitako beiak eta ardi zarrak edo esnetakoak, nekez dute goraberririk. Zaldiko batzuek ere, saldu dira aragitako.

SARIAK: Bizitzako abereak; bei onak, esnetan edo ernari, 27'tik 37.000 pezetara; bei gazte edo mi-ga ernariak, 23'tik 29.000'tara eta txerrikumeak, 850'tik 1.000'tara. (Bei baten gatik ordaindu da 40.000 pezeta).

Aragitakoak: beia, 34'tik 38 pezetara kilo bizi; esnetako txekorrek, 75'tik 80'tara eta aundi-goak, 60'tik 65'tara; txerri gizenak, bertakoak, 32'tik 34'tara eta York, 36'tik 38'tara; ardi zarrak edo eznaikak, 20'tik 22'tara eta zaldikoak, 34'tik 36'tara.

Arantzaleak, gure omen aundi ko ibai edo ugalde Bidasora eta bere ibaiadar erretetara etortzen diranak, arrenkuraz dabilte amurrai gutxi samar ateratzen dutela; baña denak arrantza egiten dute eta berriz itzulitzen dira.



SALDIAS

ILL-BERRIA

Ia urte batean gure erriko ill-ekillak ixillik egon dira, Jaunari eskerrak. Baño maiatzaren 17'garrenean beren doñu «tristean» jotzen asi ziran, berri-berritik, Yoaneko Estebenia ill zala, erriari adieraztera emateko. Estebenia ona, zeruan arki bedi. Laurogei ta bost urte datorren Agutzuan betteko zittun.

Erri guzia bildu zen Errosarioak esatera eta gaba pasatzen erriko neskatxak egon ziran. Biaramonako atsaldako bostetan illortza eta Meza egin genittun, Meza guzia euskeraz kantatu zan.

Bere famillikoei biotz-biotzez

emanten diegu nekepenen yasapen eta arinpena.

Azken egun ontan il zitzaigun Apezzeneko Joxepa. Zeruan arkitu bedi.

ARTOAK EREITEN ETA ONGARRIAK ATERATZEN

Ez gendeak nai orduko, baño azkenean artoak geixkuenak erein dira. Aurreko aste orrek ez baitu bategi lanerako lagundu. Eurria perrateka arritu baidu. San Urbano ezkerotik denbora ona doae eta gendea ezda geldirik egondu. Ia erizioa egintxia da. Orain ongarririk ateratzen asi dira batzuek. Nekazariak ago batez esaten dute: «Kanpoak eman ezkerotz ematen duela» Orixe bai egia dela. Baño ongarrira azpira botatzen, edo gañetik ematean ikusi bear aundia dago. Bietan asko obeagoa da azpira botatzea ez-ezik gañetik ematea. Ta onena omen da azia erein bear den baño illabete batez aurretik ematea. Orrela lurra gozatu egiten omen da ta aziari jaiotzen eta egiten lagutzen dioten moxorroak bizkortu egiten omen ditu. Ongarri geiegi ematea ez omen da mesedegarri lurrarentzat; ongarririk lurrak duen kisu jan egiten omen du. Orregatik ongarririkin batean kisu eman bear omen da frutua «kisu-duna, kalzi-duna» izateko.

SAN MIGEL AINGERUA

Aurten bigarren urtea du San Migel gure errian gaba pasatzen duela. Biaramunean Legasa aldera joan zen. Datorren urte arte, Santu maitea, esan genion joatean. «Agur Migel Aingerua» kantatu ondorean.

Umetxoak pikorrek: Aspaldizko ontan erriko eta baserrietako umetxoak gaxo-antz ibilli dira pikorrek aterata. Pikor oiek oso kutsakorrek dira Orregatik eskolak, erriko eta baserriokena, itxiak egon dira.



LEITZE

Ez giñake bear dan bidetik ibilliko, toki ontan berean, esan gabe uzteakin, gure errian gauzak aldatu dirala azkeneko berriak eman giñuzen ezkerotzik. Oso txukundu daizkigute bide ta etxe-atariak. Berri gure poxtasun osoakin ematen degu gaur, ba atsegiñago baita berri onak

adieraztea txarrak baño, denbora berean txalo ziñezko batekin, gure agintari jaunentzat, entzun digute-lakoz gure oarra. Baita txalo au nai giñuke zabaldu txukuntasun au lortzeko ariketak egin dituenari.

Orain, ikusirik zenbat ederrago dan gure erria, ziur gaude, aurrera jarraiko dala gelditzen diran txokoak apaintzen. Beti bear giñuke txukuntasunerako griña ona, gauz guztietan jakifia, ori baita gure izakeraren ezagun biderik agiriena.

Gaur, ainbeste ikusketari etortzen zaizkigu errietara, naiz ok txikiak izan arren, bazter guztietatik, eta orregatik dira ainbeste indarka, Madrigo Buruzagietatik asita azkeneko erriskatarano. Naparroan bertan dauzkagu ezarriak sariak, apaintzen diran errietat. «Ez da ala? Guk aitzea degunez, Lesaka ortxe dago noski arri apañena bezala saritua.

¿Zergatik ez degu artzen guk ere arreta pittin bat, Leitze eukitzeko berari dagokion era ta mallan? Au egingo ba giñuke indarka pixka baten bidez, danak egongo gera ordun poxik, ba toki guztietatik entzungo bai litzake goraltza gure erri eder onentzat. Auxe besterik ez degu biltzen gure aldetik. Ziur aski iritsiko degula noski nai au zoriez. Gai ontaz lenbikitik esan giñuna, etzan inolaz inor biotz-mintzeagatik, idatzi artan adierazi zan bezala, bai baña norbaitek beste alderditi artu ba du azketsi, edo barkatu dezala.

Alor lanak, tioso atzera dabilta aurten. Igandetan aritu bearrean arkitzen dira nekazariak, berandu xamar baita, arto ta babarronan ereitea. Udaberri otzak, belarrak ere motxak dauzka. Toki sendoenetan nonbaitor, baña aldapaxka ta toki goienetan murriratasun andian daude. Egin lezake bai, oraindik giro egokia, oraindik okerrak zuzentzeko. Nekazaria askotan arkitzen da larritasun zainbaitetan, baño azkenean ateratzen zaio beti bear dun ura. Goiko Nagusi On Ura begira bai dago arriskoa erori ez ditezen.

Bordarien elkartzea asi da, Jaungoikoari esker. Au bai dala bearrezko gaia nekazarintzat. Nagitasun aundi batek illundu-ta dauzka gure basoetxetarrak, eta baliteke ere zainbat kezakakin elkarrenganako. Ez da arritzekoa au zertaraño ba da ere, baño kezka ta nagitasun ok alde batera utzirik, ohea izango dezue elkar-ganatzera. Gaurko bizierak ala eskatzen bai du.

Jakintza (cultura) dala ta gaurko egun otan, itz egiten degu danak, asko jakifiak geraldako ustean gaude-la. Errian bizi-malla goratzea gora ta bera, baño geienean dirutzaren inguruan. Iduri zaigu, txanpon ugari erabiltzea esku-artean, dena egiña dagoala, bizi-malla goratua dala. Bear bada, au ez degu baztertzen, txanponan bidez ipindua dagolako lurreko biziera; bai baño guretat, erriaren malla-goratze egizkoa, Jakintza ez direnakin, ta au beño onurakoiagoak noski gizadiarentzat. Alaxe uste izandu du ere Leitze'ko gizaki ta emakumezko talde batek, sortuaz «LEITZE'KO ABEST-BATZA», Kantari Taldea (Orfeoia) ez nola naikoa alajaña. Aurretik ba giñikin zerbait, etzala txantxetako txoria, baño Ostiel Done egunean txoraturik egon ziran entzule guztiak, eta etziran gutxi gañera, abestu zuen lekua bete baitzan gallurreraño. Talde aundia au, erriaren ariara izateko. Agertu ziran jatzera apañakin, emakumezkoak aingeruak bezin txuri, eta gizakiak edozein talde aundiko abeslarien antzera. Ez da gutxi gertutaus ontera iristea; bear baidu izan gogonaia, aala, kementa ta abar. Irurtia jaun gaztea omen degu zuzendari eta berari dakio noski. «Abest-batz» onen sortzea, bere gorabera guztiakin, lana, naigabeak eta zeñek daki, beste zerbait garaitu bearra ere. Beste egun batez, azalduko ditugu berri geiago ta xeatugokoak Abes-talde ontaz, Jaungoikoa bitarte. Oraingoz, gure aldetik zoriekin sutsu ta biotzekoan danari.

Ez da gure erria malla-goratu lan-tegik sortuaz ta ardan-gelak geituz bakarrik, baita Jakintzaz jatzeko bidetan ere. Beste bat arte.

GURATZ



NAPARROKO BIZIA



Naparroan 50.000'garren automobila (beribilla esango lukete beste batzuk), bideberrira atera berria da. Eta zer? esango du norbaitek. Guri zer?

Lenbiziko lana, ori dela ta gauzatxo batzuk ikasi ditugu. Egunkariak, gaur ta biar nolabeit bete behar diren paper oiek, ortaz mintzatu dira eta esan digutenez, orai NA jartzen duten bezala, asieran PA jartzen omen zuten. Ez da deusengatik; baño politago zait orain dagon bezala: PA (Pamplona) ere Naparroa delakotz eta, bestela IRUÑA jarriko bai nion...

Ezagutzen dut gizon bat lenbiziko aldiz ikusi zuelarik «zaldi gabeko gurdia», lasterrari eman eta mendiz etxera etorri zena. Aditua zuen bidetik ateratzen zirela; eta bada ezpada...

Baño, etzen au nik esan nahi nuena. Gaurko bizimoduan automobila prisaren seiñalea da. Gaur prisaka bizitzen da. Idiekin ez dago inora joaterik eta kentzen ari gera. Eta tresna oiek bai, ba dakigu nora joaten den: lenbaitlen beste mundura. Zenbat eta zenbat?

Gañera automobila dirua dagolako marka da. Bizimodu onaren ametsa... Ba dira andregaiak billatzeko lenbizikorik autoa erosten dutenak. Eta gero nola mantendu? Dirua dagolako seiñalea ez baño, ez dagonaren iturri mutua da askotan automobila. Edo zor aundi baten ezin beteko putzua...

Nola nahi dela berrogei ta amar milla auto ba dira, edo izan dira Naparroan. Orrek ez du asko esan nahi. Ba dira geiago dutenak (Madrilek millon erdi bat); eta gutxigokoak ere bai...

Baño, «zero» pilla ori Morris bati eman dakio; esan nahi dut, Iruñen egindako automobil bati. Eta ori beste kanta bat da. Ez nituen esan behar esan dituten gauzak. Gero txerriak bezala, azi ondoan ezin salduz asiko gera ta.

1905'ean sartu zen lenbizikoa. 1913'an ba ziren amairu. 1927'an bi milla! Orai Iruñen urte batez egiten direnak baño gutxiago.

Eta mundua ala dijoa: prisa aundiak eta gezur asko; Bat aundia eta bestea geiago. Berriz ere salduko dira automobilak txoroz beterik bai dago mundua.

Automobila lanerako duzutenak, barkatu. Bat bestearengandik gertu izanik gaua eta eguna ez dira berdin. ELIZAREN ITZA

EUSKERA, KALTEGARRI?

Euskaldun gurasoei ez dakit nola sartu zaian kaskoan euskera kaltegarri izan ditekela beste estudioak eta karrerak egiteko. Eta borondaterik onenakin, bearbada, baña itsumendirik beltzenakin, ez diete beren umeei euskerarik erakutsi nai. Tentelkeri aundiagorik, orraitio!

Jakintzak probaturik dauka euskerak kalte ez, baña mesede egin oi duela beste ikasgaiak emateko. Jarri elkarren ondoan bi ume: bata erdaldun utsa, eta bestea euskeraz ta erderaz dakiana. Askoz errezago ikasten ditu azkeneko onek beste izkuntzak, eta bai erdera bera ere.

«Ara zer dion ortaz ume txikiei eskola ematen dabilen moja batek.

Euskera, beste ikasgaietarako ere laguntzaile ona ta leiala dala, nai nuke adierazi.

Nik beti ala uste izan det. Eta orain gure eskolako mutil txikiekin proba bat egin det. Sail batean erderaz bakarrik dakitenak jarri; eta beste saillean euskeraz xamur egiten dutenak. Lenengo maillako Gramatikak dakarzikin gauza asko galdetzen dizkiet. Esate baterako: Nik erderaz atzekoz aurrera esaten dizkiedan itzekin zeñiek frase egokiagoa idatzi erderaz. Eta nik ez dakit euskeraz dakiten umetxo oien buruak ze manobra egiten oitua dau-den, baño bestien aldean egoki idazten dute.

Baita ere ikusi det txikitatik euskeraz irakurtzeak izugarriko aurrerapena ekartzen duela. Jolasean bezela ikasten dute, euren gustoko liburuak ematen bazaizkie. Eta bein oitura ori artu ezker, naiz españeraz eta naiz frantsesez, oso errez eta egoki irakurtzen dute.

Amaika aldiz entzun dute nere belarriak —eta zeñiek ez, alegia— euskerak beste ikasgaietarako kalte egiten duela. Onetxek beti min eman oi dit, eta emendik aurrera geiago emango dit. Nere eskuan banekua, olako gauzak esaten dituztenak, Euskalerritik kanpora bialduko nituzke. Itxasoz beste aldera joango balira, ez genduke gutxi irabaziko.

Alegindu gaitezen, bada, gure umetxoei txiki-txikitatik Euskal jakintza ematen, buru gabeko jendeak esaten dituzten gauzak alde batera utzita.

Umeak amaren magal goxoan asi bear dute euskeraz ikasten. Eta gero guregana, ikastolara, ekartzen dituztenean, guk fin jokatzeko badegu, euskeraren etorkizuna segurua dago. Orain arte, ez mojak bakarrik, bai gurasoak ere, naiko zabar jokatu dute kontu ontan. Orain olatu berriak asmo ederrak ditu leku askotan. Bejondaiela, Jainkoaren bide zuzenetik alendu gabe, euskera indartzen saiatzen badira. Naiz ta azaletik «ye-ye» antzean etorri.


Sor M.^a Milagrosa Asurabarrena. ("Arantzazu" errebistatik artua)

GAUZA ZAARRAK badaukate estimazioa

Gaur zortzi etorri zen Saldiako errira beratar On Julio Caro Baroja yaun jakintsua; Euskal oitura gauzetan yakintsuena da. Iruñeko «Principe de Viana» Elkargoak (Gure Diputazioak) «Museu» bat egitea erabaki du emengo gauz zaarrek eta lan orren Zuzendari On Julio jarri du (Guk euskaldunok jende guzia ikusteko gauza zaar eta oroiarriak biltzen diren tokiari «Museu» esan beharrean Erakustokia, edo Oroitokia deitzen diogu).

On Julio onek gaurkoz bildu nai ditu euna egiteko ibiltzen ziran tresna guziak, nola diran: *Mallustak, garbak, zuratzak, espatak, txarantxak, kulluak, ardatzak, liñai-estalkiak, arilkiak, matax-ariak egosteko paziak, eunkia egiteko edo yotzekoak, ta geiago...*

Baita ere nekazaritzan, nekazalgoan, ibiltzen zirenak bildu nai ditu. Beuen izenak: *Laiak, arasardea, araxabala, goldea, edo nabasta, ta abar.*




Batez ere nai luke yakin lurra iraultzeko «golde naparra»-n bat aurkitzen bada. Au guzia zurezkoa izaten omen zen, lurpeko ortza ez bestea. Emen iduri batzuek jartzen dizkizuegu ia olako tresnaren bat lurra iraultzen ibilli ote dan, norbaitek ote dakin:

Ortz ontan sartuzten zuten zurez egindako tresna ori. Ortz ori bakarrik, izaten zen burnizkoa; gañerakoa zurezkoa izaten zan.

Baita ere artzaian eta gazta egiten ibiltzen ziren tresnak ere: *Kaikua, abatza, oporra, zimiza, kardera, malatsa, kereta eta geiago...*

Goian aipatutako tresnaren bat zuen etxetan baldin bada, mesedez bildu ezazue. Beuen alde bidezko eta egoki dena emango zaitzue. Berriren bat ematekotan, mezuren bat igortzeko, On Julio Karo Baroja-Itzea (Etxea) -Bidasoko Beran. Eta eskerrik asko!!

Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa



Yoan den Garagarrillaren 11'ean Donostiko Anoetako pilota lekuan Euskalerriko bertsolarien Txapelketa ospatu zen. Txapelketa unek izan du arrakasta, Anoeta leporaño yendez betea zagon eta erraten dutenez bai omen ziren 3500 etik pasa.



UZTAPIDE

Irugarren aldiz Uztapide Txapeldun atara zaigu eta oraingoan Xalbador bigarren.

Amekak eta laurdenetan Txapelketari asiera eman zitzaion eta goizeko saio unta zortzi bertsolari aritu ziren: Garmendia ta Gorrotxategi gipuzkoarrak, Madariaga ta Arotzamena nafartarrak. Lopategi ta Mugartegi bizkaitarrak, Mattin lapurditarra eta Xalbador baxenabartarra. Uztapide eta Lazkao-Txiki yoan den urteko Txapeldun ta bigarren baiziren, auek atsaldako utzi zituzten Epai-maikoak edo Juradukoak Euskaltzaindiko Yaunak eta probintzi bakotxetako bi lagun izan ziren, Juradoa 13 lagunek osotzen zutela. Alpontxo Irigoien beti bezala zuzendari edo suyet-emaile.

Txapelketa guzietan bezala lehenik bertsolari bakoitxak bertso bana bota zuten eta gero bidenazka aritu ziren. Bikoteak gisa unta: Mattin ta Lopategi, Gorrotxategi ta Xalbador, Garmendia ta Arotzamena, Mugartegi ta Madariaga, Mota guzietako gaiak erabilirik eta denak onak eta yendearen gogokoak. Merexi du aipatzea Arotzamenak bota zuen bertsoa zuzendariak lau puntu eman zizkionean. IBAIA, ARRAIA, GARAIA USAIA, eta ona emen gure lesakar bertsolariak atara zuen bertsoa:

Etxe onduan daukagu eundoko ibaia, bañan urri xamar dago barruan arraia, Urumea errekek or dauka usaia, garbitzeko re mutillak ba-diyeu garaia.

Bertso au 500 pezetarekin saristatua izan zen. Zorionak Mikel. Zortzi bertsolariak beren lana akitu ondoren Juradoak behar zuten iru oberenak autatu eta erabakia olaxe izan zen: Lopategi, Gorrotxategi eta Xalbador izan ziren aukeratuak eta iru auek Lazkao-Txikiarekin batean arratsaldako saioan ariko ziren.

Bazkalondoan sabelak ongi ornituta ondoan berriz ere denok "Anoeta"-ra, goizean baiño yende geiago baginen, an bazen su ta kar, Bortzak laurden gutitan eman zitzaion asmenta arratsaldako lanari.

Lehenik bakoitxak bertso bana bota zuten. Lazkao-Txiki erran beharra zuen bazkaltzeko zer yan zuten. Lopategi bazkarian zer edan zuten. Gorrotxategi bazkaria zenbat kosta zitzaion eta Xalbadorrek berriz, maia serbitu zuen neskatxari egin zion bertsoa. Gero bidenazka, Lazkao ta Lopategi, eta Xalbador ta Gorrotxategi, Lan ori egin ta ondoan bakarka aritu ziren denak gai bera erabili behar zutela, ortarako bat ez bertze guziek kanpora atara zituzten bere lagunaren bertsoak aditu etzeza ten eta gisa ortan bakarka egin zuten agindutako lana. Gaia auxe zen:

Bertso bat beren buruari, Iru bertso kontzientziari, Iru bertso irriari (parrari).

Lau kobleriak xarmanki aritu ziren eta beren bertsoen erran-naia eta mamia guzien gañekoa izan zen. Berriz ere Juraduoak erabakia artu beharra eta oraingoan bat bakarrik berexi behar, gero azken



FERNANDO AIRE «XALBADOR»

saioan Uztapidekin buruz buru yokatu zezan. Epai-maikoek gauzak ongi aztertu edo esaminetu ta ondoan, Xalbador urepeldarra auekerratu zuten, ortaz bada gure baxenabartar kobleria Uztapidekin zein-geiagoka ari beharra zen, biek beren ahalmen guziak erakutsirik Txapela ardietsi beharrez.

Dudik gabe Juradoen erabakia zenbaitzuei etzitzaien gustatu eta yende basatiaren antzera txistuke ta uyuke asi ziren arrabots nardagarria egifik, ori lotsagarria izan zen. Bertze gañerakoek eta geienak Maikoen erabakia onarturik Xalbadorren ohoretan txalo ederrak yo zituzten. Noizbait ere yendea ixildu zenean Uztapide ta Xalbador kantu lanean asi ziren eta orduan Xalbadorrek botako zuen egun guziko bertsoak oberena ta hunkigarriena. Emen aren bertsoa:

Anai-arrebak ez otoi pentsa neure gustura nagonik; poz geiago izango nuen albotik beha egonik; zuek epazerate kontentu errua ez daukat ez nik; txistuak yo dituzute bainan maite zaituztet oraindik.

Bertso unek merexi izan zuen Sari berexi bat. Gero zuzendaria ren aginduz bertsoak gisa unta moldatu beharrak zituzten:

Uztapidek doluz yauntzitako aur bateri; eta Xalbadorren behar zuen erran, aurak sortzen direnean zergatik egiten duten negar. Bi kobleriak errandakoak biotza ukitu zituzten, hunkigarria bai.

Gero bertze lan bat: Uztapide ta Xalbador biek anaia, Uztapide argiastean lanera doa eta etxetik ateratzean bere anaiaekin topo egiten du, au gau guzian parrandan ibilia eta orduan erretiran.

Lan unta ere biek arras ongi bertso egokiak eginik. Azkenean bakarka biek gai berarekin eta ortarako bat kanpora atara zuten bertzearen erranak aditu etzezan. Erabili zutena emen:

Lehenik lau puntu emanda bertsoa osotu: ANTZA, DANTZA, ARRANTZA, ESPERANTZA, INOR, GOGOR, JATOR, PIZKOR.

Gero bertze bi bertso gai au arturik:

Jito baten semea Banko edo Diru-Etxe bateko diru-zain egin dute eta bi bertsolariak Banko ortan baitituzte diruak...

Eta azkenengoz iruna bertso goatzeari (oyari). Orai agertu ditzagun bi kobleri oken zenbait bertso.

UZTAPIDE

Izan nai baldin badegu euskaldunen antza; beti librian egin biar degu beti dantza; Aspudin eniz ni juaten arrantza baina gaur arratseko badet esperantza.

XALBADOR

Emen yendeak dauka Itsas'ari antza; iduri du barruan daukala arrantza; Gaztek, aunitz maite dute jolas eta dantza; ortarikan badute zerbait esperantza.



AROZAMENA

Gero oyari emandako irugarren bertsoak emen:

UZTAPIDE

Nere oraingo iru bertsoan oyaren kontua dabill; ba-dakizute ni erdi gaixo eta naguala debill; Bere aurrian aurkeztutzen naiz eta jarriko naiz umill; oe zuri batean jayo nintzan da oe zuran nai nuke ill.

XALBADOR

Oe gaixoa zu maitagarri zutaz ez nitaike ixil; zutaz behartu gabe egun bat munduan ez daike ibil; denak orrara datoz azkenean izanikan ere abil; zutan sortu eta zutan aziak zutan behar dugu guk il.

Biek beren lana akitu dute eta yende guzi guzia eta orai berexkuntzik egin gabe, esku-zarta berroekin bi bertsolariak ohoratu zituzten.

Azkenekoz, Juradoak auzia ola xe erabaki zuen:

UXAPELDUN . . . UZTAPIDE.
Bigarren . . . XALBADOR.
Irugarren . . . LOPATEGI.
Laugarren . . . LAZKAO-TXIKI
Bortzgarren . . . GORROTXATEGI
Seigarren . . . AROTZAMENA.
Zazpigarren . . . GARMENDIA.

eta gero: Mugartegi, Mattin ta Madariaga.


Uztapide Txapeldun eta Xalbador bigarren. Zorionak bieri, biek zerate onak eta elkarren iduri, biek berdintsu, ohore zueri. Ar ditzatela bertze gañerakoek ere gure zorianik maitekorrenak, batez ere Arotzamenak eta Madariagak gure nafartar kobleriak ain ongi goratu baitute gure Nafarroaren euskal izena. Zorionak ere Epai-Maiko yaunei. Azkenik sariak banatzea eta bertsolarien Azken Agurra.

Bertsolari guziak ongi ari izan nak dira eta gazte oiek oso onak agertu zaizkigu batez ere Lopategi bizkaitarra eta Gorrotxategi gipuzkoarra.

Egun gogoangarria Donostian igaro ginuena, etzaigu aisa atzenduko eta oroitzapen maitagarri ori gure biotzetan gordeko dugu.

¡GORA gure BERTSOLARIAK!

M. IZETA



LAZKAO-TXIKI

UZTAPIDE

AROZAMENA

MUGARTEGI



—Eta orai zer duzu negar geiago egiteko?

—'Bueltarik' ez bai diazu eman!

Medikuan:

—Ez duzu ainbeste erre behar. Ogeita-amar zigarro geiegi da.

—Zenbat erre nezake? —esaten dio gaizkiak.

—Bazkal ondoan zigarrotxo bat naiko duzu.

Andik ilabete baten buruan, berriz medikuarengana:

—Ikuzten dut obeditu duzula. Asko gizendu zera eta obeki zaudete.

Trebe al zera beti ala segitzeko?

—Tripari galdetu behar! Egunean ogei ta amar bazkari... zuk dakizu zer den!?

Eskaleak: —Jauna; zerbait emango bazinu? Juan den iru egunean jan gabe nago.

Aberatsak: —Zer astokeria! Kasu egiten al diozu zure buruari, Behin galtzen da bizia...

Andregaiak: —Zurrungarik egiten duzu ametsetan?

Gizongaiak: —Ez. Sekula!!

—Eta ori nola dakizu?

—Gau bat oso osoa lorik egin gabe egona naiz jakitoko...

Ama! Norbait hil da. Karta beltza ekartzen dut!

—Ai au pena ni!! Nere anaia.

—Nola dakizu... karta ideki gabe?

—Aren letra baita!!!

Amak bost urteko bere aurrari:

—Utzi mailuko ori! Beatzari jo ta mina artuko duzu.

—Ez, ama; ez dut minik artuko. Arreba txikiak eusten dio iltzeari.

Eskribau etxean:

—Zuk salbatu nauzu, jauna! Ez dezaket aski esan zenbat zor ditzuten!

—Bai... Bost mila pezeta.

—Ez dut itzik, ez eta dirurik zu pagatzeko.

Lapurriari:

—Egia da diru falsua egiten zinuela?

—Bai jauna.

—Eta nolaz ori?

—Ona besteen eskutara joaten zela iakotz.

Iriko autobusean:

Aur bat negar eta negar ari da.

—Zergatik egiten duzu negar?

—esaten dio txartelen gizonak.

—Poltsan neukan 'duroa' galdu bai dut!

—Ez egin negarrik. Ona nun daukazu zure txartela...

—Txartelarekin eta negar geiago...